



IRAUNKORTASUN PLANA EXEKUZIO TXOSTENA

2024





IRAUNKORTASUN PLANA EXEKUZIO TXOSTENA

2024



Legezko Oharra

Iraunkortasun Plan Global honek ekintza-multzoa du helburu legeak eskatzen duenetik urrunago doa. Beren helburua garapen iraunkorrari ekarpena egitea da.

Repsol taldeko enpresa partaideek horiei guztiei aurre egiteko asmo irmoa dute. Hala eta guztiz ere, betetzeko orduan aldatu, atzeratu edo indargabetzeko ahalmena gordetzen dute, legezko erantzukizunik izan gabe. Ildo horri eutsiz, kasu horiek jendaurrean justifikatzeko konpromisoa hartzen dute.

© PETRONOR, S.A. 2024: Eskubide guztiak gordeta daude. Agiri hau Petronor, S.A. ren jabetzakoa da eta oso-osorik edo zati batean erreproduzi daiteke bakarrik merkataritza-helbururik gabe hedatzeko bada.

EDUKIERAK

1	1 . Iraunkortasunaren gure ikuspegia	4
2	2 . Garapen Iraunkorraren helburuak	6
3	3 . 2024ko Iraunkortasun Plana	7
3.1	3.1 Gure urteko laburpena	8
3.2	3.2 Aldaketa klimatikoa	10
3.3	3.3 Ingurumena	16
3.4	3.4 Berrikuntza eta teknologia	21
3.5	3.5 Eragiketa segurua	26
3.6	3.6 Pertsonak	30
3.7	3.7 Etika eta gardentasuna	33
4	4 . Plana eguneratzeko prozesua	35

1. Iraunkortasunaren GURE IKUSPEGIA

Petronorrek honako hauxe du xede: energiaren eta produktuen arloan gero eta handiagoa den eskaerari erantzutea, garapen jasangarriaren alde egiten dugun ekarpena ahalik eta handiena izan behar dela kontuan hartuta; eta, 2050ean, berotegi-efektuko gasen (BEG) isuri garbirik gabeko konpainia izatea, gure **Jasangarritasun Politikan** adierazten den bezala.

Horretarako, gure **Jasangarritasun Eredua** sei jarduketa-ardatzetan dago antolatuta, eta ingurumen, gizarte eta gobernantza arloko gai nabarietak kontuan hartzen dira bertan.

Geure interes-taldeekin hitz egiten dugunez, behar besteko aukerak antzematen ditugu, geure eragin onenak ahalik eta handienak eta eragin txarrak ahalik eta txikienak izan daitezten. Urtero-urtero, aukera horiek **Jasangarritasun Planetako** ekimenetan gauzatzen dira, hau da, gure konpromisoak eta, ostean, gure aurrerakuntzak jakitera ematen dituzten ekintza-plan publikoetan.

Jasangarritasun Plan Globalean, konpainia moduan jasangarritasunaren arloan ditugun helburuak azaltzen dira, eta, **Tokiko Jasangarritasun Planen** bidez, ordea, ibilbide-orri hori hedatzen da herrialde edo industria-gune bakoitzean, geure jarduera garatzen dugun lekuetako inguruabarrak eta premiak kontuan hartuta.



Iraunkortasun plana Petronorren Ereduaren 6 ardatzen inguruan egituratzen da



ALDAKETA KLIMATIKOA

BEGen 2050ean isuri garbirik ez daukan konpainia izan nahi dugu



INGURUMENA

Energia eta produkturik eraginkorrena sortzeko ezinbesteko baliabideak kontsumitzen ditugu, ahalik eta eragin txikienarekin



BERRIKUNTZA ETA TEKNOLOGIA

Berrikuntza sustatzen dugu eta aurrerapen teknologikoak eranstean ditugu gu eta gure ingurunea hobetu eta hazteko



ERAGIKETA SEGURUA

Gure langileen segurtasuna, kontratistena, bazkideena eta tokiko erkidegoarena bermatzen dugu



PERTSONAK

Pertsonen aldeko apustua egiten dugu, eta haien garapena zein lan egiten duguneko erkidegoena sustatzen ditugu



ETIKA ETA GARDENTASUNA

Gauden toki guztietan arduraz eta zintzotasunez jarduten dugu

2. Garapen Iraunkorraren HELBURUAK

2030erako Agendak eta bertako **Garapen Jasangarrirako 17 Helburuek** (GJH) honako hauxe dute helburu: txirotasuna desagerraraztea, planeta babestea eta gizaki guztien oparotasuna hobetzea. Petronoren, agenda horri eman diogu babes 2015ean onartu zenetik, eta konpromiso hori geure Jasangarritasun Politikan hartzen dugu kontuan.

7., 8. eta 13. GJHei ematen diegu lehentasuna, energiaren lorpenean, garapen sozioekonomikoaren sustapenean eta klima-aldaketaren ondorioak murrizteko ekintzan dugun zereginagatik. Horrez gain, honako hauexen aldeko apustua egiten dugu geure eragiketetan: uraren kudeaketa jasangarria (6. GJH), berrikuntza (9. GHJ) eta baliabideen erabilera eraginkorra (12. GJH). Jakin badakigu konpromiso horiek betetzeko funtsezkoa dela guztion artean lan egitea (17. GJH).

Urtero, **GJHen Txostena** argitaratzen dugu, eta, bertan, hainbat adierazle, proiektu eta lekukotasunen bidez, maila globalean nahiz tokian-tokian agendan egiten dugun ekarpena zein den erakusten dugu. GJH txostenak www.repsol.com web-orrian eskuragarri daude.

Aurrean ditugun erronken jakitun, 2021ean, IPIECA egin genuen, hau da, **petrolioaren eta gasaren sektorerako GJHen ibilbide-orria**. Azken bi urteotan, aurrera egin dugu ibilbide-orri horretan zehaztutako ekintzekin bat egiteko orduan, 2030erako Agendan ekarpen handiagoa egin nahian.

Hartutako konpromisoaren arabera, 2023an, 2030erako bidaiaren erdialdean, **2030erako Agendari buruzko Jardunaldia** egin genuen sektore pribatuko zenbait arlotako adituekin. Bertan, aurrerakuntza eta ahaleginak bikoizteko premia izan genituen eztabaidagai.



3. 2024ko Iraunkortasun plana

Tokiko testuingurua kontuan hartuta **Plan** honetan zehaztutako **ekintzek 2030eko Agenda** babestea dute xede, honako helburu hauek jorratzean:



3.1 Gure urteko laburpena

BALANTZEA

Urtea amaitutakoan, Iraunkortasun Planean zehaztutako ekimen guztien berri emateko garaia da. Lorpen-mailaren balantzean honako hauxe izan da:



Aurrerago, planean zehaztutako ekintza guztien informazio xehea kontsultatu ahal izango duzu, baita adierazleak eta ekintzei buruzko gainerako informazioa ere.

3.1 Gure urteko laburpena

PROIEKTU AZPIMAGARRIENAK

Petronorren garapen iraunkorra sustatzen dugu...

Gizartearen, ingurumenaren, gure eragiketen segurtasunaren eta gure giza taldearen onerako diren ekimen berritzaileak sustatzea.

Digitalizazioa bultzatzea

Petronorrek, Repsolen eta Cellnexen laguntzaz, zentro industrialaren digitalizazioa eta deskarbonizazioa sustatu ditu. Horretarako, 5Gn oinarritutako komunikazioen irtenbidea sortu du, ingurune industrialean bertan eragiketa eta aplikazio berrien garapena abian jartzeko asmoz. Aldi berean, Gai Ekonomiko eta Eraldaketa Digitaleko Ministerioak finantzatu du proiektua.



Financiado por la Unión Europea
NextGenerationEU

Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia

GOBIERNO DE ESPAÑA
MINISTERIO DE ECONOMÍA Y TRANSFORMACIÓN DIGITAL




Erregai berriztagarriak erabiltzea

%100eko HVO erregai erabili dugu, Athletic Clubeko zaleak Sevillako kopako finalera eramateko garraioan, Bilbon egindako harreran Athleticen "gabarrarekin" batera zihoan Petronorreko itsasontzian, jendea Bilboko BBK Live Jaialdira eramateko garraioan (120.000 lagun 3 egunetan), Gasteizko Azkena Jaialdiko artisten garraiorako erabilitako furgonetetan eta gazteak Muskizko Doberel Jaialdira eramateko anezka-autobusean.

STEAM beka ematea

Petronorren, prestakuntza zientifiko teknologikoa eskaintzen diegu inguruko udalerrietako gazteei, eta, inolako zalantzarik gabe, aukera handiak ditu lanmerkatuan. Hori dela eta, 2024an, LHko Beken Programa jarri dugu abian, 20 beka banatu ditugu eskakizunak betetzen zituzten izangaien artean eta aurkeztutako emakume guztiak onuradunak izango dira.





3.2 Aldaketa klimatikoa

Gizartea bezala, kezkatuta gaude giza jarduerak kliman daukan eraginagatik, eta **konpromiso** daukagu Pariseko Hitzarmenarekin, baita industrializazioaren aurretiko maileri dagokienez planetaren batez besteko tenperaturaren igoera mugatzeko daukan helburuekin ere.

Azken hamarkadotan, posizio aurreratua eratu dugu Petronorren, **iragaitza energetikoari eta klima-aldaketaren aurkako borrokari dagokienez**.

Petronor, konpainia gisa, sektoreko aitzindaria izan da, 2019an geure gain hartu genuelako **2050ean isuri garbirik ez edukitzeko** konpromisoa, Pariseko Hitzarmenean adierazten den bezala. Horrez gain, teknologiaren eta industrian daukan ezarpenaren aldeko apustua ere egin dugu.

Iragaitza energetikoa aurrekaririk gabeko erronka da. **'Trilema energetikoa'** dugu aurrez aurre, mix energetikoa deskarbonizatu behar delako eta, aldi berean, energia-hornikuntza fidagarri bezain merkea bermatu behar delako.

Gure ustez, **teknologia eta digitalizazioa** funtsezkoak izango dira, 2050ean isurien neutraltasuna lortzeko orduan. Bertan, gainera, honako hauexek izango dira deskarbonizazioaren sustatzaile nagusiak: gaur egungo eragiketen eraginkortasun energetikoa hobetzea, elektrifikazio berriztagarria sustatzea, erregai berriztagarriak bultzatzea eta karbonoa atzematea, erabiltzea eta biltegitzea.

Klima-aldaketari aurre egitea erronka handia da gizartearentzat. **Petronorrek irtenbidearen parte izan nahi duenez**, helburu zehatzak dituen ibilbide-orria diseinatu du, eta horren betearazpenean ari da aurrera egiten.





Aldaketa klimatikoa



EKINTZA

Eragiketen eraginkortasuna handitzea eta prozesu-ekipamenduetako isuriak murriztea.



AZALPENA

Zenbait ekipamendutako motorren orde, elektrifikazioaren bidez eraginkorragoak diren beste batzuk jarriko ditugu. Horrela, haien eraginkortasun energetikoa handituko dugu, lurrunaren kontsumoa murriztuko dugu eta, horren ondorioz, ez dugu berotegi-efektuko gasik isuriko.



ADIERAZLEAK

Urteko 11.200 tona CO₂-ren isuria murriztea.




ZER LORTU DUGU?

2024. urtean, lau motor elektrifikatu ditugu, eraginkorragoak izan daitezen eta haien erabilerarekin lotutako berotegi-efektuko gasen isuriek behera egin dezaten. Proiektu nagusia 2025eko otsailean jarriko da abian, eta, horri esker, berotegi-efektuko gasen isurien murrizketa urteko 13.000 tona CO₂-koa izango da.



GIHEKIKO EKARPENAK





Aldaketa klimatikoa



EKINTZA

Gasolioak ekoizteko prozesuak deskarbonizatuko ditugu prozesuko isuriak murriztean.



AZALPENA

Unitateetako eraginkortasun energetikoa hobetuko dugu. Horretarako, korranteetan eskuragarri dagoen beroa erabiliko dugu lurruna sortzeko, eta galdaretako gasaren kontsumoa aurreztuko dugu.



ADIERAZLEAK

Urteko 10.300 tona CO₂-ren isuria murriztea.



ZER LORTU DUGU?

2024. urtean, eraginkortasun energetikorako proiektuak jarri ditugu abian, lau unitateetako korranteetan dagoen beroa ustiatzeko asmoz. Urtebetean, proiektu horiei esker, berotegi-efektuko gasen isuriaren murrizketa urteko 12.000 tonatik gora CO₂-koa izan denez, urteko 10.300 tona CO₂ murrizteko konpromisoa gainditu dugu.



GIHEKIKO EKARPENAK





Aldaketa klimatikoa



EKINTZA

Beroa berreskuratzeko ekipamenduen errendimenduak hobetzea.



AZALPENA

Lurrunaren sorkuntza handituko dugu FCC Unitateko flue-gasezko galdaran. Hori lortzeko, gaur egungo galdara kendu eta eraginkortasun handiagoko eta diseinu hobetuko galdara jarriko dugu. Galdara berri horri esker, goi-presioko lurrunaren sorkuntza handituko dugu orduko 5 eta 7 tona artean.



ADIERAZLEAK

Urteko 7 tona CO₂-ren isuria murriztea.



ZER LORTU DUGU?

Beroa berreskuratzeko ekipamenduen errendimendua hobetu dugu. Horretarako, 2024ko 1 Q lehenengo lauhilekoan bihurtetarako egindako geldialdian, galdara berria jarri zenez, eraginkortasuna areagotu da FCCko gasen beroa berreskuratzeko orduan. Horrela, 6.530 tonako karga nominaleko murrizketa lortu dugu CO₂ isurtzeko orduan.



GIHEKIKO EKARPENAK





Aldaketa klimatikoa



EKINTZA

BIO produktuak erabiliko ditugu erregaiak ekoizteko orduan.



AZALPENA

Erregaien karbono-aztarna gutxituko dugu. Horretarako, bio jatorriko lehengaiak eta hondakinak prozesatu eta sartuko ditugu desulfuraziorako unitateetan, eta hidrogeno berriztagarria sartuko dugu erregaietan.



ADIERAZLEAK

Erregaien ekoizpenean bio jatorriko 50.000 tona sartzea.



ZER LORTU DUGU?

2024. urtean, Petronorren, bio jatorriko 202 kt osagai ezarri ditugu erregaien fabrikazioan. Gasolioen lerroan, 136 kt BIO ezarri ditugu guztira, eta, horietatik, 112 kt 2Bko (bigarren belaunaldiko) hondakin organikoak izan dira. Prozesatutako eta ziurtatutako lehengaien jatorria "Used Cooking Oil" (UCO) eta GRASA2 izan dira. Gasolinen lerroan, ezarritako BIO osagaia 66 kt-koa izan denez, 2024rako geneukan 50 kt-ko konpromisoa gainditu dugu.



GIHEKIKO EKARPENAK





Aldaketa klimatikoa



EKINTZA

Eraldaketa-proiektuek ingurunean dauzkaten arriskuak eta aukerak ebaluatzeko azterlana egitea.



AZALPENA

Ingurunearen gaineko arriskuak ebaluatzeko azterlana egingo dugu Petronorreko eraldaketa-proiektuei dagokienez. Proiektu horietan ingurunearen ikuspegia ulertzean, aukerei aterako diegu onura, gizartearentzako ekarpena ahalik eta handiena izango da eta geure jardueraren eragina gutxituko dugu.



ADIERAZLEAK

Azterlana 2024ko abendurako amaitzea.




ZER LORTU DUGU?

Institutu independente baten eskutik, 'Petronor eraldatzeko proiektuetan arrisku sozialak eta komunikaziokoak kudeatzeko estrategia' izenburudun azterlana egin dugu. Azterlan horretan, plangintzaren arabera Petronorrek hurrengo urteetan abian jarriko dituen eraldaketa-proiektuekin lotutako inguruneko arriskuak ebaluatzen dira. Azterlan hori kontuan hartuta, une honetan garatzen ari diren 20 ekintzak osatutako Ekintza Plana zehaztu dugu. Azterlan hori maiatzean amaitu zen, hain zuzen ere.



GIHEKIKO EKARPENAK





3.3 Ingurumena

Petronorrek ingurumenaren arloan daukan konpromiso nagusia gizarteari energia zein produktuak hornitzea da, premiak eraginkortasunez estali ahal izateko. Horretarako, behar besteko neurriak hartu behar ditu, kapital naturalaren babesa, kutsaduraren prebentzioa eta baliabideen erabilera jasangarria sustatzeko, konpainiako **Ingurumen Politikan** adierazten den bezala.

Horretarako, behar besteko ekintzei ematen diegu lehentasuna, **geure jardueren ondorioz sortutako arriskuak antzemateko eta murrizteko**, ondorio kaltegarriak prebenitzeko eta ondorio onak sustatzeko, geure eragiketetan nahiz bezeroei eskaintzen dizkiegun produktu eta zerbitzuetan. Horretarako, behar besteko neurriak hartzen ditugu, **ekonomia zirkularraren** printzipioak ezartzeko, eraginkortasun energetikoa sustatzeko eta karbono-aztarna murrizteko.

Bete-bete lan egiten dugu, eragiketetarako lizentzia sozialari eusteko eta **geure balio-kate osoan** jarduteko. Horretarako, kapital naturalaren irizpideak ezartzen ditugu konpainiaren erabaki estrategikoak hartzean, eta, ingurumenaren kudeaketari begira, murrizketaren hierarkian oinarritutako neurriak ezartzen ditugu. Bertan, gainera, eraginen prebentzioa zein murrizketa eta geure eragiketak garatzen ditugun ingurumenaren berreskurapena dira ezinbesteko tresnak.





Ingurumena



EKINTZA

Erregaien ekoizpenean ekonomia zirkularra sustatzea.



AZALPENA

G2 desulfurazio-unitatea eta beharrezko sistema logistikoa egokituko ditugu, biojetaren sorkuntza-ahalmena areagotzeko.



ADIERAZLEAK

Inbertsioa gauzatzea.



ZER LORTU DUGU?

2024an, sistema logistikoko inbertsioa bukatu dugu. Esparru horretan, aldaketak egin ditugu tangetan, zisternak deskargatzeko instalazioetan eta haien ponpa dosifikatzaileetan, G2 gasolioen hidrotratamendurako unitateko eragiketak egokitzeko eta, aldi berean, unitatean bertan, biojetaren fabrikazioa abian jartzeko. Izan ere, jatorri biologikoko lehengaien bidez sortutako erregaia da biojeta.



GIHEKIKO EKARPENAK





Ingurumena



EKINTZA

Uraren berreskurapena hobetzea eta Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergotik datorren kontsumoa murriztea.



AZALPENA

Euskadin, uraren erabilera arduratsua bultzatuko dugu. Horretarako, administrazioarekin lan egingo dugu inguruko ur berreskuratuen erabileran, geure prozesuen eraginkortasunean eta eraldaketako inbertsio arduratsu bezain jasangarrian.



ADIERAZLEAK

Muskizko eta Galindoko HHUAekin harremanetan jartzea eta azterketa egiteko bidea urratzea.



ZER LORTU DUGU?

Zenbait aldiz batzartu gara partzuergoarekin, eta bi bisitaldi egin ditugu Galindoko HUAra, proiektuaren bideragarritasuna aztertu nahian partzuergoak etorkizuneko lankidetzetan eskaini ahal izango lizkigukeen ur birsortuen kalitateei buruzko datuak biltzeko. Hartara, Muskizko HHUArekin eta Galindoko HUArekin harremanetan jartzen hasi gara, Euskadin uraren erabilera arduratsua elkarrekin sustatzeko asmoz.



GIHEKIKO EKARPENAK





Ingurumena



EKINTZA

Inguruko ikasleekin eta boluntarioekin suteak suntsitutako baso-saila berritzea.



AZALPENA

Suteak erretako baso-saila berrituko dugu baso atlantikoko bertako espezieen bidez, biodibertsitatearen galera berrezartzeko. Jarduera Mello izeneko onura publikoko mendian garatuko da, honako hauexen koordinaziopean biodibertsitatearen galera eta bere zerbitzu biosistemikoak berrezartzeko: Bizkaiko Ingurune Naturala Kudeatzeko Saila, Muskizko Udala eta "El Cerro" izeneko borondatezko lanerako gizarte-erakundea.



ADIERAZLEAK

1. 500 ikasleren partaidetza ziurtatzea.
2. Basoko hektarea bat berritzea.



ZER LORTU DUGU?

2 hektareako azalerako basoa berritu dugu 2019ko martxoko suteen ondorioz Muskizen suntsitutako eremuan. Ekimen horretan, honako erakunde hauen eskutik joan gara, besteak beste: Muskizko Udala, Bizkaiko Foru Aldundia eta "El Cerro" Boluntariotzako Erakunde Soziala. Basoa berritzeko prozesuan, Muskizko 5 ikastetxeetako 700 ikaslek baino gehiagok parte hartu dute, eta tokian tokiko 800 zuhaitz landatzea lortu dute; esate baterako, urkiak, lizarrak, pagoak, gaztainondoak, elorri zuriak eta greziondoak.



GIHEKIKO EKARPENAK





Ingurumena



EKINTZA

Erregai berriztagarrien erabilera sustatzea Petronorreko jarduerarekin lotutako garraio-zerbitzuetan.



AZALPENA

Erregai berriztagarrien erabilera (biodiesela) sustatuko dugu autobusen flotetan, Petronorri zerbitzuak ematen dizkietenak eta Petronorrek babestutako edo lagundutako ekitaldietan erabiltzen direnak kontuan hartuta.



ADIERAZLEAK

2024an hiru arrakasta-kasu lortzea.




ZER LORTU DUGU?

Erregai berriztagarriak erabili ditugu 5 ekintza hauetan, %100eko HVO, hain zuzen ere: Petronorren babespean Athletic Clubeko zaleak Sevillako kopako finalera eramateko garraioan, Athleticceko "gabarrarekin" batera zihoan Petronorreko itsasontzian, jendea Bilboko BBK Live Jaialdira eramateko garraioan (120.000 lagun 3 egunetan), Gasteizko Azkena Jaialdiko artisten garraiorako erabilitako furgonetetan eta Muskizko kontzerturako anezka-autobusean.



GIHEKIKO EKARPENAK





3.4 Berrikuntza eta teknologia

Berrikuntza teknologikoa funtsezkoa da eredu energetiko jasangarriagoak eratzeko eta gure produktu zein zerbitzuen deskarbonizaziorako erronkari aurre egiteko.

Petronor Innovación Espainiako I+Gko eredu pribatu abangoardistenetakoa da **Repsol Technology Laben** laguntzaz. Izan ere, bete-betean lan egiten du, deskarbonizazioaren arloan konpainia moduan zehaztu dugun helburua lortzen lagunduko diguten teknologia antzemateko, balioztatze eta garatzeko.

Ikerlanaren osagarri, **Corporate Venturing** inbertsio-fondoa eta berrikuntzarako estrategia irekia ere baditugu, mundu zabaleko zentro teknologikoekin, enpresekin eta unibertsitateekin aliantzak ezarri ahal izateko. ArcelorMittalen, Holcimen, Iberiaren eta Repsolen arteko aliantzaren ondorioz, Espainiako industriako berrikuntza teknologikorako hub bakarra sortu da, All4Zero, zehatz-mehatz, eta deskarbonizazioaren nahiz ekonomia zirkularren arloko teknologia disruptiboen eskala-faktorea azkartzea dauka helburu, industria bera eredu jasangarriagorantz eraldatzeko.

2022an, Repsolek fondo korporatiboaren osagarri den venture-kapitaleko kanpoko fondo berria merkaturatu zuen. Arrisku-kapitaleko inbertsio-fondo berri hori, **Net Zero Ventures**, alegia, Suma Capitalekin sortu da, deskarbonizazioaren nahiz ekonomia zirkularren arloko teknologia dituen helburu eta 150 milioi eurorainoko kapitala edukiko du. Bi fondoek ekosistema ekintzailea bultzatzen eta teknologia antzematen lagunduko digute, iragaitza energetikoan eta 2025ean isuririk ez egoteko helbururantz aurrera egin ahal izateko.

Horrez gain, Repsolek sektoreko bazkideekin parte hartzen du **OGCI Climate Investmentsen** (OCGICI), start-upetan egingo den 1.000 milioi dolar baino gehiagoko inbertsioa bideratzeko eta, horrela, klima-aldaketaren ondorio kaltegarriari aurre egiteko, hornikuntza energetikoarekin lotutako berotegi-efektuko gasen isurien murrizketaren bidez.

Era berean, 2017an sortu zenetik, **Petronor Innovación** Petronorreko I+Gko Unitatea da, teknologia berriak, produktuak zein fabrikazio-prozesuak ikertzeko eta garatzeko eta, horrez gain, adimen artifizialeko digitalizazioa konpainiako arlo guztietan eta, batez ere, segurtasunarekin, fidagarritasunarekin zein ingurumenaren gaineko eraginarekin lotuta dauden arloetan ezartzeko.



Berrikuntza eta teknologia



EKINTZA

Deskarbonizatutako erregaiak ekoizteko demostrazio-lantegia eraikitzea.



AZALPENA

Erregai sintetikoen lantegia eta 10 MW-ko elektrolizadorea eraikitzen hasiko gara, 2050ean inolako isuri garbirik ez edukitzeko eta, aldi berean, teknologia zein ekoizpen-eredu berrien ezarpena sustatzeko.



ADIERAZLEAK

1. Proiekturako IBI lortzea.
2. Portuko partzelaren esleipen-titulua erdiestea.
3. Eraikitze eta eraikitzen hasteko lizentzia lortzea.



ZER LORTU DUGU?

2024ko martxoaren 15ean, Ingurumeneko Baimen Integratua (IBI) lortu dugu, erregai sintetikoen lantegia eta 10 MW-ko elektrolizagailua eraikitzeke. Hilabete bereko 26an, hain zuzen ere, portuko lurzatiaren emakida ere erdietsi dugu. Eraikitzeke lizentzia uztailan lortu genuenez, erregai sintetikoen lantegiko instalazioak eraikitzen hasi ginen irailean.



GIHEKIKO EKARPENAK





Berrikuntza eta teknologia



EKINTZA

Ekoagregakinen fabrikaziorako lantegi industrialak eraikitzekeko proiektuak egitea.



AZALPENA

Hondakinak lehengai moduan erabilia, karbono dioxidoa (CO₂) finkatzeko instalazioen eraikuntzarako proiektuak betearaziko dugu. Lortutako produktua, ekoagregakina izenekoa, erabiliko dugu obra zibila egiteko. Horrela, ekonomia zirkularra sustatzaile moduan erabilia, geure gunea deskarbonizatzeko jarraitzen dugu lanean.



ADIERAZLEAK

1. Ingurumen Baimen Integratua (IBI) eta Hondakina Izateari Utzi Izana lortzea.
2. Lantegia eraikitzen hastea.
3. Bazkideekin hitzarmena sinatzea eta jarduera hau ustiatzeko sortutako sozietateko akzioak banatzea.



ZER LORTU DUGU?

Eko-agregakinen edo materialen fabrikaziorako lantegi industrialak eraikitzekeko proiektuaren esparruan, ondo egin dugu aurrera eraiki aurretiko faktore guztietan. Izan ere, Ingurumeneko Baimen Integratua (IBI) zein Hondakin Izateari Uzteagatiko Ziurtagiria lortu genituen apirilean, eta, martxoan, notarioaren aurrean sinatu zen bazkideen hitzarmena. Era berean, sozietatearen akzioak ere banatu ziren. 2025eko urtarilaren hasieran, lantegia eraikitzen hasi gara.



GIHEKIKO EKARPENAK





Berrikuntza eta teknologia



EKINTZA

Azpiegitura logistikoak eta mugikortasunerako hidrogenoaren banaketarako azpiegiturak garatzea.



AZALPENA

Abanto-Zierbenan kokatutako parke teknologikoan, lantegi logistikoa eraikitzen hasiko gara, Petronorreko findegiko elektrolizadoreko (2,5 MW) hidrogenoa eraikita dagoen kanalizazioaren bitartez jaso ahal izateko. Lantegi horretan bertan konprimatu eta biltegitratuko da, tangak (MEGC) kargatu ahal izateko eta, horien bidez, hidrogenoa beste leku edota bezero batzuei hornitu ahal izateko. Kokagune horretan bertan, HRS Abanto eraikiko da 350 - 700 bar-ko hidrogenoaren hornikuntza publikorako.



ADIERAZLEAK

1. Lantegi logistikorako eta HRS Abantorako permitinga lortzea.
2. Lantegi logistikoa eta HRS Abanto eraikitzen hastea.



ZER LORTU DUGU?

Lantegi Logistikoari eta HRS Abantori dagokienez, honako urrats hauek eman ditugu 2024an:

- Oinarrizko ingeniari-tza egin dugunez, proiektua idatzi ahal izan dugu, eta, horren bidez, obrarako nahiz jarduerarako lizentziak eskatu ditugu apirilean. Obrarako lizentzia irailean eman digute.
- Obraren hasieran, lurra mugitu dira, eta lan hori irailean amaitu da.
- Eskakizun teknikoak zehaztu ditugu, ekipamenduaren eta bere instalazioaren inguruko eskaintza eskatzeko asmoz.



GIHEKIKO EKARPENAK





Berrikuntza eta teknologia



EKINTZA

Industria-guneko digitalizazioa sustatzea 5G teknologian oinarritutako irtenbidearen garapenaren bidez.



AZALPENA

Komunikazioen arloko gaitasunak, fidagarritasuna eta segurtasuna hobetuko ditugu, 5G igortzeko gai den komunikazio-sareak eskainitako abantaileri esker. Izan ere, Petronorreko industria-gune osoa estaliko du, baita itsas terminal hurbila eta hidrogeno berdearen sorkuntzarako lantegia ere.



ADIERAZLEAK

1. 5G sarea hedatzea.
2. Gutxienez, bi erabilera-kasutan ezartzea, haietako batean komunikazio kritikoak kontuan hartuta, eta beste batzuk ikuskaritza-ibilbideetan ezartzea.



ZER LORTU DUGU?

Arlo industrialeko 5G komunikazioen sare pribatua urrian jarri zen abian, uztailan hasitako aurretiatzko proba-fasearen ostean. 5G komunikazioen sarea hedatu denez, komunikazio kritikoaren erabilera-kasua sortuko da apurka-apurka, eta gaur egungo komunikazio-instalazioak ordezkatuko ditu 2025ean. Abenduan, 5G sarearen bidez dabilzan hiru robot autonomoen proba funtzionalak egin dira.



GIHEKIKO EKARPENAK





3.5 Eragiketa segurua

Petronorrek, bere Laneko Segurtasun eta Osasun Politikan jasota, behar besteko konpromisoa dauka bere jarduera guztiak **pertsonen osotasuna babesteko eta ingurunean zein ingurumenean inolako kalterik ez egiteko**, aldi berean, osasungarria eta segurua den lan-ingurunea egotea ere bermatu behar du.

Konpromiso hori betetzeko, **arriskua kudeatzeko jarrera proaktiboa** eduki beharra dago, istripuetatik nahiz ohiko lan-jarduketetatik erakundeak berak ikasbidea atera dezan. Modu berean, segurtasuna kudeatzeko prozesu sendoak ere jarri behar dira abian.

Gaur egungo testuinguruan, eragiketa segurua **eragiketa digitaletara** ere hedatzen da. Honako faktore hauen ondorioz, etengabe areagotzen dira eragiketa digitalen arloko mehatxuak: munduko tentsio eta gatazka geopolitikoak, gero eta negozio-arlo gehiagotara zabaldutako digitalizazioa nahiz adimen artifiziala (AA) eta gero eta baliabide gehiago dituen eta AA ere modu estentsiboan darabilen ziberkrimena.

Zenbatespenen arabera, Petronorren ustez, hurrengo hiru urteetan zibersegurtasuneko arriskuak %20-%40 igoko dira seguruenik, eta, egoera mingotsagoak egon daitezkeenez, adi-adi behatuko ditu.

Orain dela 15 urte baino gehiago, geure prozesuak eta zibersegurtasuneko teknologiak **hobetzeko eta egokitzeko** zikloetan lan egiten hasi ginen, eta inbertitu egin genuen, arriskuak gutxitzeko ditugun neurriak etengabe eguneratuta egon daitezzen. Hori dela eta, inbertsio horrek etengabe egin du gora, eta gora egiten jarraituko du.





Eragiketa segurua



EKINTZA

Petronorreko bertako sistematikaren bidez, instituzio publikoekin lan egitea suteak itzaltzeko prestakuntzetan.



AZALPENA

Prestakuntza edo prestakuntza-saioa egingo dugu larrialdietarako instituzio publikoekin, geure jardunbidea, larrialdietarako prozedurak eta komunikazio-sistemak sakon-sakon ezagutzeko eta kontzientziatzeko.



ADIERAZLEAK

Ekintza betearaztea eta prestakuntza ematea.



ZER LORTU DUGU?

Informaziorako eta trukerako bilera egin dugu larrialdietako instituzio publikoekin. Horretarako, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailaren menpe dagoen SOS Deiak erakundeko egoitzara joan eta batzartu egin gara. Bileran bertan, partekatutako prozedurak eta larrialdiak behar bezala kudeatzeko neurriak izan ditugu aztergai. Egoitza horretatik eta zerbitzu horretatik, Euskadiko era guztietako larrialdi guztien kudeaketa koordinatzen da: industrialak, osasun-arlokoak, trafikokoak...



GIHEKIKO EKARPENAK





Eragiketa segurua



EKINTZA

Segurtasunerako lankidetzaren ingurunea indartzea instituzio publikoekin.



AZALPENA

Larrialdietarako simulakroa egingo dugu zenbait instituzio publikoren laguntzaz eta partaidetzaz; esate baterako, Bizkaiko Suhiltzaileak, SOS Deiak, Ertzaintza...



ADIERAZLEAK

Simulakroa egitea.



ZER LORTU DUGU?

Administrazioarekin segurtasunerako lankidetzaren ingurunea indartzen jarraitzeko, Petronorren, simulakro orokorra egin dugu azaroan, eta, bertan, arrakastaz gauzatuak simulakroan agertzen diren instituzio publikoek parte hartu dute.



GIHEKIKO EKARPENAK





Eragiketa segurua



EKINTZA

Benetako suaren erabilera murriztea suteen aurkako simulakroetan.



AZALPENA

Petronorreko langileek suteen aurka egindako praktiketako ikusizko inpaktua gutxituko dugu, eta, horretarako, benetako suaren erabilera mugatuko dugu geure instalazioetan.



ADIERAZLEAK

Benetako suaz egindako praktiken kopurua %50 murriztea.



ZER LORTU DUGU?

Eremu industrialean, benetako suaren bidez egindako praktikak %50 murriztu dira, suteen aurkako praktikek Petronorreko langileen artean daukaten ikusizko eragina gutxitzeko asmoz.



GIHEKIKO EKARPENAK





3.6 Pertsonak

Gure langileak, erkidegoak, gure merkataritza-harremanak eta gure bezeroak gure Jasangarritasun Ereduaren funtsezko ardatza dira. Badakigu Petronor osatzen duten pertsonak gure **abantaila lehiakor nagusia eta konpainia jasangarria izateko gakoa direla.**

Honako honexen aldeko apustua egiten dugu: aukera-berdintasuna, langileetan oinarritutako talentu dibertsoaren kudeaketa, bizitza profesionalaren eta pertsonalaren arteko oreka, prestakuntza zein garapena eta talentuaren erakarpena nahiz euspena.

Enpresa-jarduera gero eta zorrotzagoa den eta gero eta informazio gehiago duen ingurune sozialean garatzen da, eta konpainiok ahalegindu egiten gara gurekin elkarreragina duten eragileekin **harreman sendoak** ezartzen, baina, batez ere, gure eragiketetatik hurbil dauden erkidegoekin, honako honexetan oinarrituta daudela kontuan hartuta: errespetua, sentsibilitate kulturala, osotasuna, erantzukizuna, gardentasuna, fede ona eta ez-bereizkeria.

Petronorren, nazioartean enpresen arloan aitortutako giza eskubideak geure jarduera eta merkataritza-harreman guztietan errespetatzeko konpromisoa dugu.





Pertsonak



EKINTZA

STEAM bokazioak sustatzea LHko beken programaren bidez, baina, batez ere, emakumeen artean.



AZALPENA

STEAM bokazioekin lotutako LHko graduatuko ikasketetarako beken programa jarriko dugu abian Somorrostroko LHko zentroan ikasi nahi duten inguruko udalerrietako ikasleentzat. Programa horren bitartez, emakumeen partaidetza sustatuko dugu, gaur egun horrelako ikasketetan duten agerpen txiki-txikiari aurre egiteko.



ADIERAZLEAK

1. 20 beka ematea.
2. Beken %50 baino gehiago esleitzea deialdiko eskakizunak betetzen dituzten emakumeen artean.



ZER LORTU DUGU?

2024ko urriaren 28an, LHko Beken Programa jarri dugu abian, eta, bertan, STEAM bokazioekin lotutako LHko graduatuko 28 ikasle aurkeztu ziren.

Azkenik, 20 beka esleitu ditugu eskakizun guztiak betetzen zituzten izangaien artean. Beketara aurkeztu diren emakume guztiak onuradunak izango dira.



GIHEKIKO EKARPENAK





Pertsonak



EKINTZA

Jokabide mendetasun-sortzaileak prebenitzea, drogen ondorioen eta kontsumoaren arriskuen inguruan sentsibilizatzeko.



AZALPENA

Geure langileei behar besteko prestakuntza ematea substantzia horien efektuei buruz; esate baterako, nola desitxurutzen duten errealitatearen pertzepzioa. Horrela, prebentzioa eta egoera horretan daudenen tratamendua zein errehabilitazioa sustatuko dira.



ADIERAZLEAK

Gutxienez langileen %75 prestatzea.



ZER LORTU DUGU?

Adikzio-jokabideei buruzko prestakuntza eskaini diegu enpresako zuzendaritza guztiei, talde hori oso-osorik sentsibilizatu beharra dagoela kontuan hartuta, erakundean bertan daukan eginkizuna edonolako dela ere. 2024an zeuden langileen %76,2k parte hartu dute prestakuntza horretan.



GIHEKIKO EKARPENAK





3.7 Etika eta gardentasuna

Bete-betean lan egiten dugu agerpena daukagun herrialde guztietan. Gure jokabide etikoaren arabera, legea bera ez ezik, bere espiritua ere bete behar dugu zorrotz-zorrotz. Ardatz honetan, helburu guzti-guztiak zehazten ditugu, konpainiak Petronorreko langile guztientzako eta bere hornitzaile, kontratista nahiz enpresa laguntzaileentzako **osotasunaren eta erantzukizunaren kultura sustatu eta suspertzen duela** ziurtatzeko.

Horrez gain, gardenak izatea eta kontuen berri ematea giltzarria da geure interes-taldeekin daukagun harremanetan.





Etika eta gardentasuna



EKINTZA

Petronorreko aholkulari-talde publikoen metodologia berrikustea, gazteen partaidetza sustatzeko asmoz.



AZALPENA

Petronorrek bere inguruko hiru udalerrietan dituen aholkulari-talde publikoak funtsezkoak dira herritarrekin daukagun harremanean, hurbiltasuna eta gardentasuna bermatzen dituzte-eta. Proiektu honen bidez, talde horien dinamika zein metodologia eguneratuko ditugu, gazteek bertan parte hartu dezaten eta, horrela, haien ikuspegia, kezkek nahiz ideiak topagune horietan kontuan hartu daitezten.



ADIERAZLEAK

Metodologia berrikustea eta 2024an abian jartzea.




ZER LORTU DUGU?

Komunikazioko foroetan parte hartzeko orduan inguruko zer eragile diren egokiak zehaztu dugu. Izan ere, metodologia berriaren arabera hasi dira lanean, eta, batez ere, gazteak edukiko dituzte helburu. Diseinu berria zehaztu dugu inguruko hiru udalerrietarako foro partekatuen bidez. Azkenik, egutegia ezarri dugu, 2025ean metodologia abian jartzeko asmoz.



GIHEKIKO EKARPENAK



4. Plana eguneratzeko PROZESUA

Iraunkortasun Plana dokumentu dinamikoa da.

Urtero, plan hau osatzen duten ekintzen lorpen-mailaren berri emango dugu, eta, horretarako, **amaierako txostena** argitaratuko dugu.

Bestetik, gure alderdi interesdunentzat kezkarriak diren gaiak edo aurreikuspenak aldagarriak direnez eta urtean jazotako gertaeren bilakaerarekin lotuta daudenez, plan hau **urtero** eguneratuko da ekintza berrien bidez, edo, bestela, indarrean daudenak zehaztuko dira berriro, egoera berrira egokitu ahal izateko.

Plana eguneratu ahala, bete diren ekintzen azterna geratuko da haien atzean, eta, denak batera, gure konpainiak garapen jasangarrira egindako ekarpena izango dira.





